

MAZAREN MAGIA

Orain dela mila urte, mago bat bizi zen Hieldor herrian, honek ez zeukan eskurik, eta honen tokian metalezko esku bat zuen, buruan metalezko kaskoa eta gorputzean arropa beltza. Ez zeukan formarik, magia egindako kea zen. Eta oso inportantea, esku batean maza bat zuen eta beste eskuan harriz egindako *harmarria*. Herriak animalia asko zituen, landare ugari, eta baso erdian zegoen.

Halako egun polit batean, gaztelu bateko soldaduak Hieldor *konkistatzera* joan ziren, bakarrik gutxi batzuk geratu ziren eta gaztelura eraman zituzten, gazteluko *ziegetara* (magoa barne). Gau erdian gaztelu osoa lo zegoela magoak maza hartu eta ateari kolpe erraldoia eman zion eta atea zerura joan zela, kaleetara irten ziren. Andra zahar bat ikusi zuten eta hau esan zuen:

-Kaixo, zuek Hieldorrekoak zarete ezta?

-Bai.

-Aaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaa!!!!!!!!!!!!!!!

Eta andra zaharra korrika irten zen erregearengana



joan eta dena kontatu zion. Erregeak alarma jo zuen eta soldadu guztiek armadura jarri eta haiek harrapatzera joan ziren.

Soldaduak magoaren bila hasi ziren, magoak

poltxikotik bola bat atera zuen eta soldadu guztiak bola batean sartu zituen. Bat-batean, bola apurtu egin zen, orduan ezin zuen ezer egin, baina zeruan *nazgûl*/bat agertu zen, soldadu guztiak joan egin ziren, nazgûlaren gainera igo eta Hieldorrera abiatu ziren.

Gauean afari eder bat jan zuten, orduan gazteluan generala erregeari esplikazioak ematen ari zen ea zergatik soldaduek ez zuten irabazi:

-Baina errege, mago bat zegoen haiekin eta ezin genuen ezer egin, magia erabili zuen irabazteko.

-Zuek zarete soldaduak, barre eragiten didazue.

-Baina ezin genuen ezer egin.

-Berdin zait hartu bailestero batzuk eta konkistatu herria.

-Bai jauna. -(soldadua burumakur joan zen)-.



Generalak 100 bailestero hartu zituen eta Hieldor konkistatzera joan ziren.

Hauek isilean basora sartu ziren amorruekin, baina

beti erregeak zioena eginez.

Herrian guztiak zeuden lotan, eta hori aprobetxatu zuen generalak, hau eginez:

Herria sakonune batean zegoenez, bailesteroak talde

txikitan banatu zituen eta puntu estrategikoetan kokatu. Orduan belarrezko bolardoak egin zituen eta sua emanik herrira bota zituen.

Herritarrek hau ikusita ihesari eman zioten baina inork ez zuen bizirik irautea lortu, izan ere, bailesteroek guztiak akabatu zituzten.

Generala gaztelura iritsi zen eta erregeak pertsonalki zoriondu zuen.

Bost urte geroago, erregea lasaia zirudien goiz batean esnatu eta balkoira hurbiltzean milioika soldaduko ejerzitoa ikusi zuen gaztelu aurrean. Eta ez hori bakarrik, bi *Nazgûl* zeuden.

Ejerzitoak gaztelu guztia suntsitu zuen eta horrela bukatu zen gazteluaren historia, behintzat gerra horretan.



Soldadu guzti-guztiak magoak ziren, baina haiekin gazteluko soldadu bat zegoen, erregearen espioi bat zen eta korrika gaztelura joan zen.

-Errege jauna, milioika dira ez dugu irabaziko.

-Badakit eta berdin zait, ni joan egingo naiz eta zuek hemen geratuko zarete, ni defenditzen geratuko zarete ni joaten naizen bitartean.

-Beste gauza bat jauna, ni eta nire soldaduek kokoteraino gaude zutaz eta haiekin paktua egin dugu.

-Nola?

-Entzun duzun bezala.

-Traidoreak!!!!!!!!!!!!!!

-Hemen dago, etorri guztiak.

Denek erregea inguratu zuten, jendearen artean magoa zegoen eta erregea bola baten sartu zuen, zer gertatuko da geroago...

AMAIERA

Gorka Irureta